

## AGINTARIAK ETA LANGILEAK

### Oposizioak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 1658

*675/2026 EBAZPENA, apirilaren 7koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzan Erizaintzako eta Zainketetako zuzendariorde lanpostua izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzen duena.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzan Erizaintzako eta Zainketetako zuzendariorde lanpostua hutsik egongo dagoela aurreikusita, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluan Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Estatuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan xedatutakoarekin, Zuzendaritza Nagusi honek erabaki du deialdi publikoa iragartzea aipatutako lanpostua izendapen askez hornitzeko, oinarri hauen arabera

#### OINARRIAK

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzako Erizaintzako eta Zainketetako zuzendariorde lanpostua betetzeko deialdian ebazpen honen bitartez egiten da deia, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioen erakundeei atxikitako langile finkoek parte har dezakete (funtzionarioek, estatupekoek nahiz lan-kontratuko langile finkoek), bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta horko erakunde autonomoetako funtzionarioek ere B1/B2 talde profesionalekoa betiek. Hauek dira bete beharko dituzten baldintzak:

1.– Titulazio akademikoa: B1 taldeko edozein unibertsitate-diplomatura edo gradua eduki beharko dute.

2.– Hizkuntza-eskakizuna: 3, derrigorrezkoa.

3.– Esperientzia: 5 urteko esperientzia izatea B1 taldeko zereginetan.

Bigarrena.– Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko Langileen eta Talentuaren Zuzendaritzan aurkeztu beharko dituzte eskabideak, 10 egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritako moduan ere aurkeztu ahal izango dira.

Hirugarrena.– Deialdi honetan parte hartu nahi duten izangaiek curriculum vitae-a aurkeztu beharko dute eskabidean, eta bertan honako hauek jasoko dituzte:

– Titulu akademikoak.

– Betetako lanpostuak.

– Esperientzia profesionala eta kudeaketa sanitariokoa.

– Ikasketak, ikastaroak, txostenak, argitalpenak, hizkuntzak eta egoki iritzitako beste edozein merezimendu.

Eskabidearekin batera, eskatzen diren betekizunen eta aurkeztutako merezimenduen egiaztagiriak aurkeztu beharko dituzte hautagaiek. Era berean, egoki iritzitako argitalpen, txosten edo bestelako agiriak ere aurkeztu ahal izango dituzte.

Aurreko paragrafoan adierazitako moduan ez da beharrezkoa izango Osakidetzako CVaren aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta dauden alderdiak egiaztatzea, baina egoera hori izangaiaren eskabidean adierazi beharko da.

Laugarrena.– Deialdi hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez ebatziko da. Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Bosgarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 7a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MIREN LOREA BILBAO ARTECHE.